

BUKATZEN EZ DEN HISTORIA

Bazen behin irakurtzen eta idazten hasi berria zen neska txiki bat. 4 urte zeukan eta oso pozik zegoen. Dena irakurtzen zuen: kaleko kartelak, xanpuaren etiketa, errotuluak...

Egun batean San Pedroko mendira joan zen aitonarekin eta elizatik galdetu zion aitonari.

- Zer jartzen du hor?
- Nik ez dakit, ni extremeñoa naiz. Nik ez ditut ezagutzen Altsasuko ohiturak. Segi ikastolara eta ikasi han. Galdetu irakasleari.

Bueltatu ziren herrira. Hurrengo egunean ikastolara joan zen, irakasleari galdetu zion eta erantzun zion:

- Ni gipuzkoarra naiz eta ez dakit. Nik ez ditut ezagutzen Altsasuko ohiturak. Segi etxera eta galdetu aitonari.

Egilea: Jose Luis Ojer